



Urtarrilaren 24ko 1/2014 Errege Dekretu Legeak, bere 9. artikulua BEZa arautzen duen legea aldatu du. Artelanekin, zaharkinekin eta bilduma-gaiekin egindako eragiketa jakin batzuen BEZaren zerga tasa berria ezarri du. Aldaketa urtarrilaren 26an sartu da indarrean . 2012ko uztailaren aurreko tributazio egoerara bueltatu dira eragiketa hauek:

- Artelan, zaharkinen eta bilduma-gaien inportazioa.

- Artelanen emateak eta batasun barruko eskurapenak, beti ere emate horiek egileek, eskubidedunek edo kenkari eskubidea duten birsaltzaileek ez diren enpresari edo profesionariek egindakoak direnean.

%10ean zergapetuko dira (%21ean egon dira).